




**Gipuzkoako Foru Aldundia**  
Diputación Foral de Gipuzkoa  
**Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurune**ko Departamentua  
Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural

# Gipuzkoako Ibaien Arrain-Ikerketa

Laburpena  
2019ko Urtea



**AURKIBIDEA**

<b>1.</b>	<b>SARRERA .....</b>	<b>3</b>
<b>2.</b>	<b>AZTERKETA-EREMUA ETA LAGINKETA-DATAK.....</b>	<b>5</b>
<b>3.</b>	<b>AMUARRAIN – POPULAZIOAREN EGOERA 2019AN .....</b>	<b>7</b>
3.1.	DENTSITATEA ETA BIOMASA .....	9
3.2.	ARRAIN-POPULAZIOEN UGALKETA.....	13
3.3.	AMUARRAIN GAZTE ETA HELDUEN DENTSITATEA.....	16
<b>4.</b>	<b>AMUARRAIN POPULAZIOEN DENBORA BILAKAERA .....</b>	<b>22</b>
4.1.	GIPUZKOAKO ESTAZIO GUZTIEN DENBORA BILAKAERA .....	22
4.2.	AMUARRAIN DENTSITATEAREN BILAKAERA ARRO ETA ESTAZIOAREN ARABERA.....	28
4.2.1.1.	Oiartzun Arroa .....	28
4.2.1.2.	Urumea Arroa .....	29
4.2.1.3.	Oria Arroa .....	30
4.2.1.4.	Urola Arroa .....	31
4.2.1.5.	Deba Arroa.....	32

## Taulen aurkibidea

1. Taula	Laginketa-estazioen sarea. 2019. urtea .....	5
2. Taula	Arrain-populazioen ezaugarriak. 2019. urtea .....	7
3. Taula	Amuarrain-populazioen dentsitate eta biomasa sailkatzeko tarreak: .....	9
4. Taula	Amuarrain-populazioen dentsitatea eta biomasa. 2019. urtea.....	9
5. Taula	Arrainkumeen erreklutamendu tasaren eta dentsitatearen sailkapen tarrea. ....	13
6. Taula	Amuarrain-populazioaren erreklutamendu tasa. 2019. urtea. ....	13
7. Taula	Arrain gazteen sailkapen tarrea, dentsitatearen arabera.....	16
8. Taula	Amuarrain gazteen dentsitatea. 2019. urtea.....	16
9. Taula	Arrain helduen sailkapen tarrea, dentsitatearen arabera .....	18
10. Taula	Amuarrain helduen dentsitatea. 2019. urtea. ....	18
11. Taula	Amuarrain-populazioen sailkapen-tarrea dentsitatearen arabera.....	22
12. Taula	Amuarrainen denbora-bilakaera adinaren arabera.....	25
13. Taula	Amuarrain-dentsitatearen denbora-bilakaera (1994 – 2019) .....	46
14. Taula	Amuarrain-biomasaren denbora-bilakaera (1994 – 2019) .....	47
15. Taula	Arrainkume-dentsitatearen denbora-bilakaera (1994 – 2019). ....	48
16. Taula	Gazte-dentsitatearen denbora-bilakaera (1994 – 2019). ....	49
17. Taula	Heldu-dentsitatearen denbora-bilakaera (1994 – 2019).....	50

## Irudien aurkibidea

1. Irudia	2019 kanpainako estazioen kokapenak .....	6
2. Irudia	Amuarrain – populazioen dentsitatea. 2019. urtea. ....	8
3. Irudia	Amuarrain-populazioaren dentsitatea. 2019. urtea.....	11
4. Irudia	Amuarrain-populazioaren biomasa. 2019. urtea.....	11
5. Irudia	Arrainkume-populazioen dentsitatea . 2019. urtea. ....	14
6. Irudia	Amuarrain gazte-populazioen dentsitatea. 2019. urtea.....	17
7. Irudia	Amuarrain helduen populazio dentsitatea. 2019. urtea. ....	19
8. Irudia	Amuarrain populazioaren bilakaera, adinaren arabera.....	26
9. Irudia	Segida historikoak gainjarrita. ....	27

## 1. SARRERA

Txosten honetan, GIPIIZKOAKO FORU ALDUNDIAREN EKONOMIA SUSTAPENA, LANDA INGURUNEA ETA LURRALDE OREKAKO DEPARTAMENTUAK 2019. urtean egindako Gipuzkoako ibaietako arrainei buruzko azterketan lortutako emaitzak aztertzen dira.

Txosten-laburpen honetan, hain zuzen ere, amuarrainaren inguruko emaitzak biltzen dira, interes handiko espeziea baita kudeaketaren ikuspegitik. Europako gainerako lekuetan bezala, Gipuzkoako Lurralde Historikoan ere behera egin du amuarrainen populazioak azken hamarkadetan. Hainbat dira egoera hori eragin duten faktoreak: kutsadura, ibaiko habitataren aldaketa, kirol-arrantzaren presioa... Amuarraina Gipuzkoako arro guztietan topatzen dugu, bai ibaien goi-ibarretan eta bai behealdeko tartetean ere. Hala ere, sarriago ageri da ekialdeko arroetan, habitataren kontserbazio maila hobea dutelako

1997 baino lehenagoko urteetan –hain zuzen ere, data horretan mugatu zen merkataritza-xedez Europa erdialdeko jatorria zuen amuarrainaren birpopulaketak egitea–, amuarrain-populazioan hutsuneren bat izan zuten kasuak zuzentzen saiatu ziren, merkataritzarako arrain-hazkuntzatik etorritako arrainen birpopulaketa masiboen bitartez. Lortutako emaitzak ez ziren espero zirenak izan, eta oso biziraupen-tasa txikiak lortu zituzten, populazioen egoera apenas aldatu zutenak. Beste alde batetik, kutsadura genetikoak eragin zuten populazio autoktonoen artean, erabili zituzten arrainak leku arrotzetatik ekarri zituztelako eta patroik genetiko desberdinak zituztelako. Bestalde, hainbat saneamendu-plan eta arazketa-plan abian jartzeak uraren kalitatea hobetu du, eta horri esker, amuarraina ugaritu egin da desagertuta zegoen ibai-tarte batzuetan. Nolanahi ere, esan beharra dago ibaiko habitata oso garrantzitsua dela espezie hau berreskuratzeko, askotan uraren kalitatea hobetzea ez baita nahikoa izaten arrain-komunitatearen kalitatea hobetzeko.

Alde horretatik, azken urteetan ahalegin handiak egin dira, esate baterako, europar proiektu batzuen bidez, oztopoen iragankortasuna handitzeko. Mendaraz presaren eraistea Urumea ibaian 2009-2011 urte artean burututakoa bezala, hau BIDUR proiektuaren barnean gauzatu zen. Gaur egun LIFE IREKIBAI proiektuaren barnean baita ekintza garrantzitsuak egin dira, hala nola, Leitzaran ibaian bertan egindakoa izan da, Inturiako eta C.H. Oiokiko presa handi eta tamaina txikiagoko zenbait oztopoen exekuzioak gauzatu dira. Momentu honetan LIFE IREKIBAI proiektua exekuzio fasean aurkitzen da, Gipuzkoako esparruan Leitzaran ibaian gauzatzen da eta zenbait presen eraistez gainera, egurrezko estruktura ibaian sartuz, habitataren hobekuntzarako ekintzak aztertzen dira.

Modu honetan, Gipuzkoako Foru Aldundiak azken urteetan egurrezko estruktura bidez zenbait ekintza gauzatu ditu, ur-ibilguaren onerako. Ekintza hauen helburua, ibaiko ibilguaren egitura konplexutasuna

handitzean datza eta honekin, ibai habitataren dibertsitatea eta aberastasunari bultzada bat ematea, honela, ibai eremura lotutako espezie ezberdinen onarpen ahalmena handiagotzea eta bereziki arrain faunean.

Txosten honetan 2019. urteko kanpainan lortutako emaitzak aztertzen dira, 1994. urtean martxan jarri zenetik izan duen bilakaeraren jarraipena ere aztertzen da, honela, espeziearen ustiapen jasagarri bat eta Gipuzkoako ibaietan honen baldintzak hobetzeko beharrezkoak diren neurriak hartzen lagunduko du.

## 2. AZTERKETA-EREMUA ETA LAGINKETA-DATAK

2019. urteko laginketa-sareak 24 puntu ditu, arro desberdinetan banatuak.

### 1. Taula Laginketa-estazioen sarea. 2019. urtea.

zk.	Estazioa	Kodea	Ibaia	Arroa	Mota
1	ALTZIBAR	OIA08000	Oiartzun	Oiartzun	Finkoa
2	PENADEGI	OIA03500	Oiartzun	Oiartzun	Espezifikoa
3	KARRIKA	KAR06818	Karrika	Oiartzun	Espezifikoa
4	SAROB	SAR05800	Sarobe	Oiartzun	Espezifikoa
5	MENDARAZ	URU17500	Urumea	Urumea	Finkoa
6	PIKOAGA	URU30000	Urumea	Urumea	Finkoa
7	LASTAOLA	URU35400	Urumea	Urumea	Finkoa
8	URMENDITIK BEHERA	URR06000	Urruzuno	Urumea	Izokin plana
9	OKILEGI	ANA03800	Añarbe	Urumea	Espezifikoa
10	BENTA AUNDI	ORI34700	Oria	Oria	Finkoa
11	ZEGAMATIK GORA	ORI05500	Oria	Oria	Espezifikoa
12	ATAUNDIK GORA	AGA11000	Agauntza	Oria	Finkoa
13	LIZARTZATIK GORA	ARA15800	Araxes	Oria	Finkoa
14	LIZARTZATIK BEHERA	ARA20000	Araxes	Oria	Finkoa
15	ARAXES EXPERIMENTALA	ARA13750	Araxes	Oria	Araxes Ikerketa
16	ARAXES KONTROLA	ARA15150	Araxes	Oria	Araxes Ikerketa
17	AMERAUN	LEI23000	Leitzaran	Oria	Finkoa
18	APARRAIN	LEI24600	Leitzaran	Oria	Leitzaran
19	LIZARRAUNDI	LEI28100	Leitzaran	Oria	Leitzaran
20	AUSINEGI	LEI30800	Leitzaran	Oria	Leitzaran
21	TEILERIARTE	URO06000	Urola	Urola	Finkoa
22	MATXINBENTA	IED01800	Ibai-Eder	Urola	Finkoa
23	ARANTZAZU BARRUTIA	ARZ11300	Arantzazu	Deba	Finkoa
24	SAILOBENTE	SLO02600	Sailobente	Deba	Finkoa

5 estazio mota daude laginketa-maiztasunaren eta helburuaren arabera:

- Finkoak: urteroko laginketa (n=13)
- Urumean Izokina Berreskuratzeko Plana: urtekoa (n=1)
- Leitzaran ibaiaren jarraipena (n=3)
- Araxesen jarraipena (n=2)
- Espezifikokoak (n=5)

Laginketa horiek 2019ko Iraila eta Urrian gauzatuak izan dira. Laginketa hauek, orokorrean, ibaiak zekarren ur-emaria txikia zenean egin dira. Laginketa-puntu bakoitzean, oro har, ibai-sektorearen ezaugarri hidromorfodinamikoak islatuko dituen tarte bat aztertzen da.



1. Irudia 2019 Kanpainako estazioen kokapenak.

### 3. AMUARRAIN – POPULAZIOAREN EGOERA 2019AN


Hurrengo taula eta irudian, 2019. urteko laginketa puntuetako amuarrain populazioen ezaugarri nagusiak laburbiltzen dira eta jarraian dagoen atalean 24 estazioetan lortutako emaitzak aztertzen dira, populazio osoa eta klase bakoitza edo adin tartea bezala.

2. Taula Arrain-populazioen ezaugarriak. 2019. urtea.

ESTAZIOAK	KODEA	IBAIA	Dentsitatea (N/Ha)	Biomasa (kg/Ha)	Luzera- tartea (mm)		Populazio-egitura					
							Arrainkumeak		Gazteak		Helduak	
							N/Ha	%	N/Ha	%	N/Ha	%
Altzibar	OIA08000	Oiartzun	<b>1.608</b>	<b>32</b>	148	342	<b>1.323</b>	82	<b>203</b>	13	<b>81</b>	5
Penadegi	OIA03500	Oiartzun	<b>2.408</b>	<b>51</b>	66	258	<b>1.694</b>	70	<b>550</b>	23	<b>164</b>	7
Karrika	KAR06818	Karrika	<b>1.317</b>	<b>26</b>	67	348	<b>932</b>	71	<b>322</b>	24	<b>63</b>	5
Sarobe	SAR05800	Sarobe	<b>1.910</b>	<b>54</b>	67	280	<b>1.158</b>	61	<b>550</b>	29	<b>203</b>	11
Mendaraz	URU17500	Urumea	<b>433</b>	<b>8</b>	70	318	<b>374</b>	86	<b>36</b>	8	<b>24</b>	5
Pikoaga	URU30000	Urumea	<b>459</b>	<b>24</b>	63	250	<b>283</b>	62	<b>57</b>	13	<b>118</b>	26
Lastaola	URU35400	Urumea	<b>241</b>	<b>8</b>	79	297	<b>199</b>	82	<b>21</b>	9	<b>21</b>	9
Urmenditik behera	URR06000	Urruzuno	<b>1.360</b>	<b>35</b>	82	223	<b>967</b>	71	<b>309</b>	23	<b>85</b>	6
Okilegi	ANA03800	Añarbe	<b>1.575</b>	<b>72</b>	64	309	<b>631</b>	40	<b>727</b>	46	<b>218</b>	14
Benta Aundi	ORI34700	Oria	<b>0</b>	<b>0</b>	0	0	<b>0</b>		<b>0</b>		<b>0</b>	
Zegamatik Gora	ORI05500	Oria	<b>1.581</b>	<b>155</b>	84	457	<b>509</b>	32	<b>229</b>	14	<b>843</b>	53
Ataundik Gora	AGA11000	Agauntza	<b>3.626</b>	<b>153</b>	63	250	<b>2.280</b>	63	<b>531</b>	15	<b>815</b>	22
Lizartzatik Gora	ARA15800	Araxes	<b>486</b>	<b>62</b>	60	306	<b>33</b>	7	<b>174</b>	36	<b>279</b>	57
Lizartzatik Behera	ARA20000	Araxes	<b>565</b>	<b>81</b>	52	296	<b>0</b>	0	<b>212</b>	38	<b>353</b>	63
Araxes Esperimentala	ARA13750	Araxes	<b>1.257</b>	<b>141</b>	50	238	<b>391</b>	31	<b>289</b>	23	<b>577</b>	46
Araxes Kontrola	ARA15150	Araxes	<b>1.090</b>	<b>48</b>	70	320	<b>540</b>	50	<b>369</b>	34	<b>181</b>	17
Ameraun	LEI23000	Leitzaran	<b>771</b>	<b>45</b>	82	249	<b>424</b>	55	<b>90</b>	12	<b>258</b>	33
Aparrain	LEI24600	Leitzaran	<b>472</b>	<b>21</b>	52	289	<b>195</b>	41	<b>195</b>	41	<b>82</b>	17
Lizarraundi	LEI28100	Leitzaran	<b>425</b>	<b>26</b>	63	234	<b>179</b>	42	<b>113</b>	27	<b>133</b>	31
Ausinegi	LEI30800	Leitzaran	<b>1.307</b>	<b>45</b>	47	362	<b>763</b>	58	<b>377</b>	29	<b>166</b>	13
Teileriarate	URO06000	Urola	<b>1.099</b>	<b>53</b>	43	265	<b>319</b>	29	<b>618</b>	56	<b>161</b>	15
Matxinbenta	IED01800	Ibai-Eder	<b>1.247</b>	<b>42</b>	76	307	<b>608</b>	49	<b>502</b>	40	<b>137</b>	11
Arantzazu Barrutia	ARZ11300	Arantzazu	<b>1.057</b>	<b>56</b>	55	290	<b>299</b>	28	<b>561</b>	53	<b>196</b>	19
Sailobente	SLO02600	Sailobente	<b>4.359</b>	<b>92</b>	53	241	<b>3.516</b>	81	<b>513</b>	12	<b>330</b>	8



## 2. Irudia Amuarrain – populazioen dentsitatea. 2019. urtea.



### 3.1. DENSITATEA ETA BIOMASA

Amuarrain-populazioaren dentsitatea eta biomasa, tarte hauen arabera sailkatzen dira:

3. Taula Amuarrain-populazioen dentsitate eta biomasa sailkatzeko tarteak:

Sailkapena	Dentsitatea (N/Ha)	Biomasa (kg/Ha)
Oso txikia	< 500	≈10
Txikia	500 – 2.000	≈30
Ertaina-Txikia		≈75
Ertaina	2.000 – 4.000	≈100
Ertaina-Handia		≈200
Handia	4.000 – 6.000	≈250
Oso handia	> 6.000	

Honako hauek 2019. urteko arrantza-kanpainan lortutako emaitzak dira:

4. Taula Amuarrain-populazioen dentsitatea eta biomasa. 2019. urtea.

ESTAZIOA	KODEA	IBAIA	Dentsitatea		Biomasa	
			(N/Ha)	Sailkapena	(kg/Ha)	Sailkapena
Altzibar	OIA08000	Oiartzun	<b>1.608</b>	Txikia	<b>32,1</b>	Txikia
Penadegi	OIA03500	Oiartzun	<b>2.408</b>	Ertaina	<b>50,5</b>	Txikia
Karrika	KAR06818	Karrika	<b>1.317</b>	Txikia	<b>26,4</b>	Txikia
Sarobe	SAR05800	Sarobe	<b>1.910</b>	Txikia	<b>53,8</b>	Ertaina-Txikia
Mendaraz	URU17500	Urumea	<b>433</b>	Oso txikia	<b>8,0</b>	Oso txikia
Pikoaga	URU30000	Urumea	<b>459</b>	Oso txikia	<b>23,7</b>	Txikia
Lastaola	URU35400	Urumea	<b>241</b>	Oso txikia	<b>8,2</b>	Oso txikia
Urmenditik behera	URR06000	Urruzuno	<b>1.360</b>	Txikia	<b>34,8</b>	Txikia
Okilegi	ANA03800	Añarbe	<b>1.575</b>	Txikia	<b>72,2</b>	Ertaina-Txikia
Benta Aundi	ORI34700	Oria	<b>0</b>		<b>0,0</b>	
Zegamatik Gora	ORI05500	Oria	<b>1.581</b>	Txikia	<b>155,2</b>	Ertaina-Handia
Ataundik Gora	AGA11000	Agauntza	<b>3.626</b>	Ertaina	<b>152,9</b>	Ertaina-Handia
Lizartzatik Gora	ARA15800	Araxes	<b>486</b>	Oso txikia	<b>62,3</b>	Ertaina-Txikia
Lizartzatik Behera	ARA20000	Araxes	<b>565</b>	Txikia	<b>80,9</b>	Ertaina-Txikia
Araxes Esperimentala	ARA13750	Araxes	<b>1.257</b>	Txikia	<b>141,1</b>	Ertaina-Handia
Araxes Kontrola	ARA15150	Araxes	<b>1.090</b>	Txikia	<b>47,7</b>	Txikia
Ameraun	LEI23000	Leitzaran	<b>771</b>	Txikia	<b>45,4</b>	Txikia
Aparrain	LEI24600	Leitzaran	<b>472</b>	Oso txikia	<b>20,8</b>	Txikia
Lizarraundi	LEI28100	Leitzaran	<b>425</b>	Oso txikia	<b>26,1</b>	Txikia
Ausinegi	LEI30800	Leitzaran	<b>1.307</b>	Txikia	<b>44,8</b>	Ertaina-Txikia
Teileriarte	URO06000	Urola	<b>1.099</b>	Txikia	<b>53,4</b>	Ertaina-Txikia
Matxinbenta	IED01800	Ibai-Eder	<b>1.247</b>	Txikia	<b>42,3</b>	Txikia
Arantzazu Barrutia	ARZ11300	Arantzazu	<b>1.057</b>	Txikia	<b>56,4</b>	Ertaina-Txikia
Sailobente	SLO02600	Sailobente	<b>4.359</b>	Handia	<b>92,1</b>	Ertaina

Amuarrain alerik harrapatzen ez den Benta Aundiko estazioan izan ezik, **populazio dentsitatea** 241 amuarrain/Ha minimo (Lastaola, Urumea ibaia) eta 4.359 amuarrain/Ha maximo (Sailobenten, Deba arroa) artean kokatzen da. Dentsitate populazioa **handia** da (4.000 amuarrain/Ha baino gehiago) estazio bakarrean, Sailobenten eta bestalde, **ertaina** 2 estaziotan gertatzen da, Penadegi eta Ataundik gora (2.408 amuarrain/Ha eta 3.626 amuarrain/Ha hurrenez hurren).


Dentsitate **txikia** 1.000-2.000 amuarrain/Ha arteko tartean, 12 estazio kokatzen dira, erdiak: Oiartzun arroko hiru estazio ( Altzibar, Karrika eta Sarobe), Urumea arroko bi estazio (Urmenditik behera eta Okilegi) Oriarroko lau estazio, (Zegamatik Gora, Araxes Esperimentala, Araxes Kontrola eta Ausinegi), bi estazio Urola arroan (Teileriarte eta Matxinbenta) eta Deba arroko estazio bat (Arantzazu Barrutia).

Dentsitate **txikia**, aurrekoa baino baxuagoa 500-800 amuarrain/Ha arteko tartean berriz, bi estazio aurkitzen dira: Araxes ibaian Lizartzatik Behera eta Leitzaranean berriz Ameraun.


Azkenik, 6 estazioetan lortzen den dentsitatea **oso txikia** da, 500 amuarrain/ha bezala edo txikiagoa. Urumea ibaiko hiru estazio nabarmentzen dira, (Mendaraz, Pikoaga eta Lastaola), Lizartzatik Gora estazioa Araxesen eta Leitzaranean berriz Aparrain eta Lizarraundi.


**Biomasaren** kasuan, populazioa maila **ertaina-handian** (141-155 kg/Ha artean) Ataundik Gora eta Araxes Esperimentala estazioak kokatzen dira. Sailobenten biomasak egoera **ertaina** hartzen du (92,1 kg/Ha), 7 estazioetan berriz egoera **ertaina-txikia** hartzen du, 53,4 kg/Ha (Teileriarte) eta 80,9 kg/Ha (Lizartzatik Behera). Gainontzeko 13 estazioetan, biomasa egoera **txiki** edo **oso txikian** kokatzen da, 8 kg/Ha (Mendaraz) eta 50 kg/Ha (Penadegi) artean.

## 3. Irudia Amuarrain-populazioaren dentsitatea. 2019. urtea.



## 4. Irudia Amuarrain-populazioaren biomasa. 2019. urtea.





### 3.2. ARRAIN-POPULAZIOEN UGALKETA

Erreklutamendu-tasaren arabera (arrainkumeen portzentajea populazio orokorrarekin alderatuta) eta arrainkume dentsitatearekin, amuarrainen populazioak modu honetan sailkatu daitezke:

5. Taula Arrainkumeen erreklutamendu tasaren eta dentsitatearen sailkapen tarteak.

Erreklutamendu-tasa	Sailkapena	Arrainkumeen dentsitatea (arraink./Ha)	Sailkapena
< 0,30	Txikia	< 1.000	Txikia
0,30 – 0,50	Ertaina	1.000 – 2.500	Ertaina
> 0,50	Handia	> 2.500	Handia

Kontutan hartu behar da erreklutamendu-tasak, kontraesankorrak diren emaitzak adierazi ditzakela. Honela, naiz eta erreklutamendu tasa handia izan, arrainkume dentsitatea txikia izan daiteke eta alderantziz. Modu honetan, 2019ko kanpainen lortutako emaitzak honakoak izan dira:

6. Taula Amuarrain-populazioaren erreklutamendu tasa. 2019. urtea.


ESTAZIOA	KODEA	IBAIA	DENTSITATEA (Arraink./Ha)	SAILKAPENA	TASA	SAILKAPENA
Altzibar	OIA08000	Oiartzun	1.323	Ertaina	0,82	Handia
Penadegi	OIA03500	Oiartzun	1.694	Ertaina	0,70	Handia
Karrika	KAR06818	Karrika	932	Txikia	0,71	Handia
Sarobe	SAR05800	Sarobe	1.158	Ertaina	0,61	Handia
Mendaraz	URU17500	Urumea	374	Txikia	0,86	Handia
Pikoaga	URU30000	Urumea	283	Txikia	0,62	Handia
Lastaola	URU35400	Urumea	199	Txikia	0,82	Handia
Urmenditik behera	URR06000	Urruzuno	967	Txikia	0,71	Handia
Okilegi	ANA03800	Añarbe	631	Txikia	0,40	Ertaina
Benta Aundi	ORI34700	Oria				
Zegamatik Gora	ORI05500	Oria	509	Txikia	0,32	Ertaina
Ataundik Gora	AGA11000	Agauntza	2.280	Ertaina	0,63	Handia
Lizartzatik Gora	ARA15800	Araxes	33	Txikia	0,07	Txikia
Lizartzatik Behera	ARA20000	Araxes				
Araxes Esperimentala	ARA13750	Araxes	391	Txikia	0,31	Ertaina
Araxes Kontrola	ARA15150	Araxes	540	Txikia	0,50	Ertaina
Ameraun	LEI23000	Leitzaran	424	Txikia	0,55	Handia
Aparrain	LEI24600	Leitzaran	195	Txikia	0,41	Ertaina
Lizarraundi	LEI28100	Leitzaran	179	Txikia	0,42	Ertaina
Ausinegi	LEI30800	Leitzaran	763	Txikia	0,58	Handia
Teileriarte	URO06000	Urola	319	Txikia	0,29	Txikia
Matxinbenta	IED01800	Ibai-Eder	608	Txikia	0,49	Ertaina
Arantzazu Barrutia	ARZ11300	Arantzazu	299	Txikia	0,28	Txikia
Sailobente	SLO02600	Sailobente	3.516	Handia	0,81	Handia


Orokorrean estazio gehienetan erreklutamendua zuhurra da. **Arrainkume dentsitatea** handia da, soilik, Sailobenten (3.516 arraink/Ha), balio **ertainetan** (1.000-2.500 arraink/Ha artean) kokatzen diren estazioak lau dira: Altzibar, Penadegi eta Sarobe Oiartzun arroan eta Ataundik Gora estazioa Agauntza ibaian.

Oria aroko Benta Aundi eta Araxes ibaiko Lizartzatik behera estazioetan ez da amurra-kumerik harrapatzen, gainerako 17 estazioetan arrainkume dentsitatea **Txikia** da, nahiz eta hau bi multzo handitan erdibitzen den: lehendabiziko multzoan 7 estazio kokatzen dira, 500-1.000 arraink/Ha artean (Karrika, Urmenditik Behera, Okilegi, Zegamatik Gora, Araxes Kontrola, Ausinegi eta Matxinbenta) eta bigarren multzoan, 500 arraink/Ha-ko edo baxuagoko dentsitatearekin 10 estazio kokatzen dira (Mendaraz, Pikoaga eta Lastaola Urumea ibaian; Lizartzatik Gora eta Araxes Esperimentala Araxes ibaian; Ameraun, Aparrain eta Lizarraundi Leitzaranen; Teileriarre Urolan eta Arantzazu Barrutia Arantzazu ibaian).

Erreklutamendu tasak ordea, balio **handia** bezala kokatzen da eta ertaina estazio mordo batetan, arrainkume dentsitatea txikia den haietan baita ere, honek esan nahi du, kasu hauetan gainontzeko adin tartetako (gazte eta heldu) dentsitateak ere baxuak direla.

5. Irudia Arrainkume-populazioen dentsitatea . 2019. urtea.







### 3.3. AMUARRAIN GAZTE ETA HELDUEN DENTSITATEA

Arrain gazteen dentsitate tartea honela sailkatzen da:

7. Taula Arrain gazteen sailkapen tartea, dentsitatearen arabera.

Gazteen dentsitatea (gazte/Ha)	Sailkapena
< 600	Txikia
600 – 1.200	Ertaina
> 1.200	Handia

8. Taula Amuarrain gazteen dentsitatea. 2019. urtea.


ESTAZIOA	KODEA	IBAIA	DENTSITATEA (gazte/Ha)	SAILKAPENA
Altzibar	OIA08000	Oiartzun	203	Txikia
Penadegi	OIA03500	Oiartzun	550	Txikia
Karrika	KAR06818	Karrika	322	Txikia
Sarobe	SAR05800	Sarobe	550	Txikia
Mendaraz	URU17500	Urumea	36	Txikia
Pikoaga	URU30000	Urumea	57	Txikia
Lastaola	URU35400	Urumea	21	Txikia
Urmenditik behera	URR06000	Urruzuno	309	Txikia
Okilegi	ANA03800	Añarbe	727	Ertaina
Benta Aundi	ORI34700	Oria		
Zegamatik Gora	ORI05500	Oria	229	Txikia
Ataundik Gora	AGA11000	Agauntza	531	Txikia
Lizartzatik Gora	ARA15800	Araxes	174	Txikia
Lizartzatik Behera	ARA20000	Araxes	212	Txikia
Araxes Esperimentala	ARA13750	Araxes	289	Txikia
Araxes Kontrola	ARA15150	Araxes	369	Txikia
Ameraun	LEI23000	Leitzaran	90	Txikia
Aparrain	LEI24600	Leitzaran	195	Txikia
Lizarraundi	LEI28100	Leitzaran	113	Txikia
Ausinegi	LEI30800	Leitzaran	377	Txikia
Teileriarte	URO06000	Urola	618	Ertaina
Matxinbenta	IED01800	Ibai-Eder	502	Txikia
Arantzazu Barrutia	ARZ11300	Arantzazu	561	Txikia
Sailobente	SLO02600	Sailobente	513	Txikia

Estazio gehienetan gazte oparotasuna urria da. **Gazteen dentsitatea ertaina** da Okilegi Añarben eta Teileriarre, Urolan (727 gazte/Ha eta 618 gazte/Ha). Harrapaketarik gertatzen ez den Benta Aundi kenduta gainontzeko 21 estazioetan gazte dentsitatea maila **txikian** kokatzen da.

Maila txikian kokatzen diren estazio hauen erdiak (10 estazio) 300-600 gazte/Ha dentsitate artean kokatzen dira: Penadegi, Karrika eta Sarobe Oartzun arroan; Urmenditik Behera Urumea arroan; Araxes Kontrola eta Ausinegi Oria arroan; Matxinbenta Urola arroan; Arantzazu Barrutia eta Sailobente berriz, Deba arroan.

Gainerako 11 estazioek 300 gazte/Ha baino baxuagoko dentsitateak lortzen dituzte; 21-57 gazte/Ha arteko minimoekin (Mendaraz, Pikoaga eta Lastaola) Urumea ibaian eta 90 gazte/Ha Leitzaran ibaiko Ameraun estazioan.

#### 6. Irudia Amuarrain gazte-populazioen dentsitatea. 2019. urtea.



Helduei dagokienez, dentsitatea honela sailkatzen da:

9. Taula Arrain helduen sailkapen tarteak, dentsitatearen arabera.

Helduen dentsitatea (heldu./Ha)	Sailkapena
< 200	Txikia
200 – 400	Ertaina
> 400	Handia

10. Taula Amuarrain helduen dentsitatea. 2019. urtea.


ESTAZIOA	KODEA	IBAIA	DENTSITATEA (heldu/Ha)	SAILKAPENA
Altzibar	OIA08000	Oiartzun	81	Txikia
Penadegi	OIA03500	Oiartzun	164	Txikia
Karrika	KAR06818	Karrika	63	Txikia
Sarobe	SAR05800	Sarobe	203	Ertaina
Mendaraz	URU17500	Urumea	24	Txikia
Pikoaga	URU30000	Urumea	118	Txikia
Lastaola	URU35400	Urumea	21	Txikia
Urmenditik behera	URR06000	Urruzuno	85	Txikia
Okilegi	ANA03800	Añarbe	218	Ertaina
Benta Aundi	ORI34700	Oria		
Zegamatik Gora	ORI05500	Oria	843	Handia
Ataundik Gora	AGA11000	Agauntza	815	Handia
Lizartzatik Gora	ARA15800	Araxes	279	Ertaina
Lizartzatik Behera	ARA20000	Araxes	353	Ertaina
Araxes Esperimentala	ARA13750	Araxes	577	Handia
Araxes Kontrola	ARA15150	Araxes	181	Txikia
Ameraun	LEI23000	Leitzaran	258	Ertaina
Aparrain	LEI24600	Leitzaran	82	Txikia
Lizarraundi	LEI28100	Leitzaran	133	Txikia
Ausinegi	LEI30800	Leitzaran	166	Txikia
Teileriate	URO06000	Urola	161	Txikia
Matxinbenta	IED01800	Ibai-Eder	137	Txikia
Arantzazu Barrutia	ARZ11300	Arantzazu	196	Txikia
Sailobente	SLO02600	Sailobente	330	Ertaina


**Amuarrain Helduen dentsitatea** 3 estazioetan sailkapen **handia** lortzen du, hauek Oria arroan lortzen dira, Zegamatik Gora, Ataundik Gora eta Araxes Esperimentala estazioetan (577 y 843 heldu/Ha artean).

6 estazio, **heldu** dentsitate maila **ertainean** kokatzen dira (200-400 heldu/Ha artean): Oiartzungo Sarobe estazioan, Añarbeko Okilegin, Araxesen Lizartzatik Gora eta Beherako estazioetan, Leitzararen Ameraun eta Deba arroan berriz Sailobenten.

Heldurik harrapatzen ez den Benta Aundi estazioa kenduta, gainontzeko 14 estazioek dentsitate maila **txikia** hartzen dute: Altzibar eta Karrika Oiartzun arroan, Mendaraz, Lastaola eta Urmenditik Behera estazioak Urumean eta Aparrain Leitzararen nabarmentzen dira, 100 heldu/Ha baino baxuagoko balioekin.

7. Irudia Amuarrain helduen populazio dentsitatea. 2019. urtea.







## 4. AMUARRAIN POPULAZIOEN DENBORA BILAKAERA

### 4.1. GIPUZKOAKO ESTAZIO GUZTIEN DENBORA BILAKAERA

1994. urteaz geroztik, arrantza elektrikoaren bitartez amuarrain-populazioen jarraipen bat egin da laginketa-sarearen 13 puntutan. Estazio hauetatik urteroko amuarrain populazioaren batz-besteko dentsitateak lortzen dira, halaber, **arrainkume**, **gazte** eta **helduen** sailkapenak lortzen dira. Aurtengo urte honekin, 1994-2019 urte arteko datuen segida gauzatzen da. Ondorengo taulan, gogoan edukitze aldera, amuarrain-populazioaren sailkapenerako dentsitate tarteak sartzen dira:

11. Taula Amuarrain-populazioen sailkapen-tartea dentsitatearen arabera.

Sailkapena	Populazioaren dentsitatea (amuarrain/Ha)	Arrainkumeen dentsitatea (arraink./Ha)	Gazteen dentsitatea (gazte/Ha)	Helduen dentsitatea (heldu/Ha)
<b>Oso handia</b>	> 6.000			
<b>Handia</b>	4.000 – 6.000	> 2.500	> 1.200	> 400
<b>Ertaina</b>	2.000 – 4.000	1.000 – 2.500	600 – 1.200	200 – 400
<b>Txikia</b>	500 – 2.000	< 1.000	< 600	< 200
<b>Oso txikia</b>	< 500			

13 estazioen, **Populazio dentsitatearen batz-bestekoa** orokorrean **1.333 amuarrain/Ha**-koa izan da, honek dentsitate maila **txikia** adierazten du. Datu hau 2018 urtean lortutakoaren antzekoa da, 1.700 amuarrain/Ha (**12. Taula; 8.Irudia**). Denbora bilakaerari dagokionez, segida historikoan zehar beheranzko joera ikus daiteke eta hiru denboraldi nabarmentzen dira: Lehendabizikoa, 1994 eta 2007 urte artekoa da, dentsitatea 3.021 amuarrain/Ha maila altu batetik, 2007 urtean 770 amuarrain/Ha serie osoko maila baxuena hartzera jaisten da. Bigarren denboraldia, 2008-2013 urte artekoa dela esan daiteke, 1.923 amuarrain/Ha batezbesteko dentsitatearekin populazioak indartu egiten dira eta 2010-ean 2.808 amuarrain/Ha eta 2012an 2.961 amuarrain/Ha dentsitate maila altuak lortzen dira. Azken denboraldian 2014-2019 artean, batzbesteko dentsitatea baxuagoa da, 1.170 amuarrain/Ha maila ertainarekin. Azken bi kanpainetan, 2018-2019 egoera apur bat hobetzen da, azken 6 urtetako baliorik hoberena lortzen bait da, nahiz eta, bi kanpainetan lortzen den dentsitatea ahula izan (1.300 amuarrain/Ha bi kanpainetan).

Urte batetik bestera gertatzen diren amuarrain dentsitatearen gora-beheranzko aldaketa handiak, arrainkumeekin lotuta daude, hau da, espezieak ernalkuntzan arrakasta izan duen ala ez. Honela, urte batean ernalkuntzak arrakasta izaten badu, hau populazioaren dentsitate osoaren goranzkoan atzematen da, modu berean ernalkuntza txar bat gertatu ezker normalean, populazio dentsitatearen beherakada gertatzen da. Ondorioz, arrainkumeen eboluzioa populazio osoaren antzekoa da, goranzko eta beheranzko gogorrak ernalkuntza ona edo txarrarekin zerikusi zuzena daukate.

2019. urtean, Arrainkume **dentsitatearen batz-bestekoa 885 arrainkume/Ha**-koa izan da, hau dentsitate txikiarekin lotuta dago. Naiz eta 2018. urtekoa baino handiagoa izan, serie osoko batz-bestekoa baino txikiagoa da (1.000 arraink/Ha). Segidak beheranzko nolabaiteko joera erakusten du, bertan lehen aipatutako hiru garai nabarmentzen dira populazio osoaren dentsitatearekiko. Lehendabizikoa, 1994-2007 urte artekoa da, arrainkumeen dentsitatea 1.626 arraink./Ha edukizetik 273 arraink./Ha 2007. urtean edukitzera pasatzen da, hau segida osoko bigarren datu okerrekoa da. Bigarren garaia, 2008-2012 urte artean kokatzen da, 1.283 arraink./Ha-ko maila ertainarekin populazioak indartu egiten dira, gainera bi gorakada handi jasaten ditu, 1.956 arraink./Ha 2010. urtean eta 2.253 arraink./Ha 2012 urtean. Azken garaian, 2013 urtetik aurrera kokatzen dena, arrainkume dentsitateak baxuak dira, 567 arraink./Ha-ko balio ertain batekin (2013-2019 artean). Goranzko bat ikusten da, azken 7 urtetako balio hoberena neurtzen da 885 arraink/Ha, 2019 urtean.

**Gazte tarteari** dagokionez, 2019 urtean **dentsitate maila ertain** bat agertzen du, **294 gazte/Ha**, hau dentsitate maila txikiari dagokio. Balio hau 2018 urtekoarekin alderatuz kaskarragoa da, 453 gazte/Ha-ko balioak lortu baitziren. Gazteen dentsitatearen denbora-bilakaera dela-eta, joera argirik ez da ikusten baina hiru garai bereizten dira. Lehendabizikoa, 1994 urtetik 2008 urtera doana, gazteen egoera beheranzkoa dauka, 887 gazte/Ha-tik 149 gazte/Ha-tara, maila ertainetik txikira pasatzen da, erreklutamendu kaxkarrak sortua. Bigarren garaia, 2009 eta 2013 urte artekoa da, gazteen dentsitateak igoera bat jasaten du, 2008 eta 2012 urte artean arrainkumeak jasandako egoera ona gaitik. Garai honetan, bi momentu maximo lortzen dira 837 arraink./Ha eta 977 arraink./Ha artekoak, 2011 eta 2013 urteetan azken hau serieko handiena izanik. 2014 urtetik aurrera gazteen dentsitateak behera egiten du, alebinen kopuruaren beherakadaren ondorioz 2013 urtea geroztik. Azken hiru urteetan, 2017, 2018 eta 2019, arrainkume mailari esker, gazte mailan hobekuntza bat sumatzen da, nahiz eta bietan datu zuhurrak izan.

**Heldu tarteari** dagokionez, 2019an lortutako **batz-besteko dentsitate** balioa **220 heldu/Ha**-koa izan da, hau dentsitate maila ertainean kokatzen da. 2018 urtean lortutakoa baino handiagoa da eta urtetik urterako segidaren batz-bestekoaren antzekoa, 250 heldu/Ha. Adin tarte honetan bi garai nabarmentzen dira, lehendabizikoa 1994-2005 urte artekoa dena, tarte honetan 508 heldu/Ha-tik 124 heldu/Ha-ra pasatuz, hau da, dentsitate handitik txikira. Bigarrena, 2006 eta 2016 urte artekoa da, bertan helduen populazioa berreskuratu eta modu egonkorrean mantentzen da, gehienetan 200 heldu/Ha gainditzen du, beraz, dentsitate ertaina. 2017 urtean, helduen adin klaseak beherakada argia jasan zuen 103 heldu/Ha-ko emaitza lortu da, dentsitate txikia. Hau da, azken 11 urteetan mantendu den baliotik %50 egiten du behera. Azken 2 kanpainen, 2018-2019 heldu tarte indarberritu egiten da eta 2019an balio ertain bat lortzera iristen da, 220 heldu/Ha. Hobekuntza hau neurri batean 2017 eta 2018 urteetan adin tarte gazteen hobekuntza gaitik gertatzen da.








Adin klase ezberdinetan oinarritzen den amuarrain populazioaren bilakaeraren azterketa honetan ikusten den moduan, arrainkume frakzioaren bilakaerak baldintzatzen du ondorengo adin klaseen ugaritasuna (gazte eta heldu frakzioak).

Horrela, 9 Irudian ikusi ahal den moduan, non adin klase bakoitzaren bilakaera gainjarria agertzen den, 2015 urteko erreklutamenduaren jaitsierak 2016ko gazte frakzioaren atzerakada suposatu zuen eta ondoren, 2017ko heldu frakzioaren jaitsiera nabarmena, urte segida guztiaren kopuru baxuena izanki adin klase honetarako. Ondoren, 2016-2018 aldiko erreklutamenduaren hobekuntza apalak gazte frakzioaren hobekuntza apala suposatu zuen 2017-2019 aldirako, heldu frakziora ere iritsi delarik, horrela 2018 eta 2019 urteetan heldu kopurua zertxobait ugartu delarik.


Beraz, amuarrain populazioaren dinamika honen logikari jarraiki, 2019ko arrainkume dentsitatea abiapuntu izanik eta apala izan arren azken 7 urteetako erregistrorik altuena dela kontutan hartuta, posible da 2020 urtean gazte frakzioaren ugaritasuna bere hortan mantentzea edo behintzat atzerakada nabarmenik ez jasatea. Aldi berean, 2019 urtean gazte frakzioaren ugaritasuna apala da, aurreko 2018 urtekoa baino baxuagoa, eta hasiera batean ez da heldu frakzioaren ugaritasunean hobekutzarik espero 2020 urterako, baliteke zertxobait jaitsi ahal izatea ere.

12. Taula Amuarrainen denbora-bilakaera adinaren arabera.

URTEA	POPULAZIOA	ARRAINKUMEAK	GAZTEAK	HELDUAK
1994	3.021	1.626	887	508
1995	1.757	661	664	432
1996	2.260	1.746	195	318
1997	1.612	883	409	320
1998	1.939	1.205	352	381
1999	2.797	1.981	515	300
2000	1.791	859	638	293
2001	2.377	1.765	304	308
2002	1.667	909	525	232
2003	1.349	693	426	230
2004	1.551	1.090	273	188
